

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5177

1342/2020 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Xabier Goicoechea Iraola jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendariorde mediko kargutik kentzen den, berak hala eskatuta.

Uztailaren 3ko 270/2013 Ebazpenaren bidez izendatu zuten Xabier Goicoechea Iraola jauna Osakidetzako Donostiko Unibertsitate Ospitaleko (egun Donostialdeko ESIa) zuzendariorde mediko.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatu daitezkeen gaineko xedapenak aztertu eta gero, zuzendaritza nagusi honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Xabier Goicoechea Iraola, berak hala eskatuta, Osakidetzako Donostialdeko ESIko zuzendariorde mediko kargutik kentzea, egindako lanagatik eskerrak emanez.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Donostialdeko ESIko Langileen Zuzendaritzari eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2020ko azaroaren 18a.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea.

E (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.